

Sahararak Bermeon

Ainhoa Unanue Mentxaka

Sahararrak Bermeon

Ainhoa Unanue Mentxaka

© Edizio honena: Bermeoko Udala

© Obrarena: Ainhoa Unanue Mentxaka

Zuzenketa eta koordinazio lana: Bermeoko Udala - Euskara Saila

Argazkiak: Azala © Unai Aranzadi

Besalde, Bermeo Sahararen alde elkarte

Julen Urdaibai

Berria egunkaria

Xanti López Baglietto

Erabilitako dokumentazioa: Mohamedek emandako informazioa

Bermeon bizi diren sahararrek emandako informazioa

Zazpika aldizkaria

Berria egunkaria

Gara egunkaria

Busturialdeko Hitza

Lege gordailua: BI-2271-08

Diseinua, maketazioa eta inprenta lanak: antza komunikazio grafikoa • Lasarte-Oria

ARGITARATZAILEA

LAGUNTZAILEA





a urkibidea

SARRERA	7
HITZAURREA.....	9
1.- MENDEBALDEKO SAHARA	11
2.- HISTORIA	17
3.- MENDEBALDEKO SAHARA, SAHARARREN JATORRIZKO LURRALDEA	25
4.- ERREFUXIATUEN KANPAMENDUAK	31
5.- EGUNGO EGOERA.....	53
6.- UDA PASATZERA DATOZEN UMEAK	63
7.- BERMEON BIZI DIREN SAHARARRAK.....	67



Sarrera

Esku artean duzun liburu hau Ainhoa Unanueren eta Bermeoko Udalaren arteko lankidetzaren fruitua da. Bermeon bizi diren etorkin-
nen herriak eta familiak hurbilagotik ezagutzeko tresna izateko idatzi
dugu. Aurrerantzean helburua, kultura arteko ikuspegi batetik elkar
ulertu eta errespetatzea izan dadin.

Metodologiari dagokionez, Errumaniako eta Saharako familiekin
elkarlanean egin da dokumentazio lana. Bere herri edo inguruneareki-
ko interesa nabaritzen duenean, azkar atera ohi zaio irribarrea edono-
ri. Errumaniako eta Saharako etorkinek, haur zein heldu, kontatu digu-
te beraien herriak zelakoak diren, zelan bizi diren bertan edo zein
ezaugarri dituzten, argazkiez lagunduta.

Azken hamar urteotan immigrazio mota berri eta berezi baten
aurrean gaude. Izan ere, orain arte ezezagunak zitzaizkigun mundu
osoko kulturak ezagutzen ari gara. Kultura horien berri izateko, aplika-
zio praktikoa izango duten eta ikasleengan pentsatuta dauden bi libu-
ruxka hauek aurkezten ditugu.

Ez dugu olatutik aparte geratu nahi, baizik eta olatuari aurre egin.
Esan nahi da, Bermeon gure ekarpena egin nahi diogula kultura arte-
kotasunari. Egun, 941 etorkin bizi dira gure herrian, horietatik 391
errumaniarrak dira, eta sahararrak beste 64. Asko bakarrik heltzen
dira, beste batzuk norbait ezagutzen zuten aurretik eta horregatik eto-
rri dira, lanerako asmoz denak Ume, gazte, zahar zein heldu. Gure
artean bizi dira, baina gutxi dakigu beraiez eta haiek gutaz.

Aipatzekoa da, historian zehar migrazioak gizonen kontua izan badira ere, egun errealtate hori aldatu egin dela. Batetik, pobrezia emakume irudia hartu du. Bestetik, gero eta gehiago dira sorterria eta familia utzita, lan eta bizi baldintza hobeen bila abiatzen diren emakumeak. Horregatik, genero ikuspegi batetik munduari begiratzen ikaslea beharrezkoa izango da etorkizuneko ikasleentzat.

Bermeon bizi diren ikasle etorkinen kopurua 10 aldiz hazi da azken sei urteetan. Hezkuntza arloan ikasleok dituzten zailtasun nagusiak komunikazio arazoak eta maila, eredu eta hezkuntza ohiturekin lotutakoak dira. Gizartean errotuta dauden aurreiritzi eta estereotipoek ere ez dute batere laguntzen. Leku guztietan denetariko jendea dagoenez, etorkin guztiak gaiztoak direla pentsatzea, adibidez, ez da bidezkoa, ezta erreala ere.

Beraz, guretzat formula egokiena kultura arteko heziketa eta balioak lantzea da. XXI. mendeko denbora eta espazio berrietan kultura desberdinetako pertsonak elkarrekin bizi gaituzten bidea egiten lagundu nahi du liburu honek. Euskaraz idatzita dago, egun Bermeon ikasle guztiek euskaraz ikasten dutelako eta, horretaz gain, kultura eta hizkuntza aniztasun egoerek hizkuntza gutxituak biziberritzeko balio dezaketelakoan.

Topiko guztien gainetik mugak zabaldu eta irudimena erabiliz murgildu!!!!



Hitzaurrea

Euskara batzordeburea naizenez, atsegin handiz aurkeztu gura ditut liburu interesgarri bi hauek, bata Bermeon bizi diren sahararrei buruzkoa eta bestea errumaniarrei buruzkoa.

Liburu hauen jatorrian Ainhoa Unanuek egindako lan proposame-na dugu, Bermeora heldu diren beste herri eta kultura batzuetako herritarrak ezagutu eta gurean dagoena ezagutzera ematea helburu, hartara, Euskal Herriko kultura eta hizkuntza eta bertora bizitzera eto- rri direnen kultura, herriak eta hizkuntza hobeto ezagutu ditzagun.

Izan ere, immigrazioa fenomeno berria ez izan arren, azken hamar- kadan beste era bateko kontuak ezagutzen ari gara, munduko herri askotako herritarrak etorri dira gurera. Bermeora nagusiki, Errumania- tik, Saharatik, Kolonbiatik eta Boliviatik etorri dira, eta konturatu gara ezer gutxi dakigula herri horietaz. Herri bat ezagutzeko modurik onena bertakoek esandakoa kontuan hartzea denez, Bermeon egun bizi direnengana jotzea eta eurekin berba egitea modurik zuzenena dela zalantzarik ez daukat.

Hori dela eta, herri bitan arreta ipini genuen eta hala idatzi dira Sahararrak Bermeon eta Errumaniarrak Bermeon liburuak.

Gaztetxoekin lantzeko moduko materiala sortu da liburuon bitartez eta sinetsita nago tresna ona izango dela bertokook kanpotik etorri direnak hobeto ezagutzeko eta kanpotik datozenek bertokoak ezagu- tzeko. Horrela aberasten dute herriek euren arteko komunikazioa, horrek ematen baitigu bidea elkarren berri izateko.

Balio dezatela liburuok Sahararen, Errumaniaren eta Euskal Herria- ren kulturak, hizkuntzak eta herritarrak hobeto ezagutu ditzagun.


Karmele Algorta Telletxea
Euskara batzordeburea



Mendebaldeko Sahara

Sarrera

Azken 15 urteetan hainbat ume sahararrek pasatu dute uda gure artean, Bermeoko familietan. Hala ere, azken urteotan, emigrazioaren ondorioz, gero eta saharar gehiago bizi dira Bermeon. Basamortuko baldintzak ez dira batere onak; harea lodia da, bero handia egiten du eta ez dago itzalik. Ur falta ere izugarria da, bakoitzak ur kupoa du eta



ezin du hori baino gehiago kontsumitu. Imajinatzen duzue zelan bizi diren kanpamenduetan? Zein ideia duzue hango bizimoduaz? Non kokatuko zenukete herri sahararra? Ea aurreko orrian dagoen mapak lana errazteko balio dizuen.

Sahara hitzak populatu gabeko lurraldea esan nahi du, inor bizi ez den lekua. Saharak, beraz, asko daude; Aljerian, Mauritania, Libian... Mendebaldeko Sahara da sahararren lurraldea.

Saharako Arabiar Errepublikako Demokratikoa Afrikako ipar-mendebaldeko muturrean dago, Kantzer tropikoaren bi aldeetan kokatuta. 266.000 kilometro koadroko zabalera du. Iparraldean Marokorekin, mendebaldean Ozeano Atlantikoarekin, ekialdean eta hegoaldean Mauritaniarekin eta ipar-ekialdean Aljeriarekin egiten du muga... SAE-Deko konstituzioak errepublika aldarrikatu zuen, estatu arabiarra, demokratikoa eta aurrerakoa. Islama erlijio ofiziala eta lege guztien jatorria da. **Hasania*** arabiar mintzaira da kanpamenduetako hizkuntza ofiziala. Bandera, berriz, independentzia lortzen dutenean alderantziz jarriko dute, beheko beltzak kolonialismoaren bukaera sinboliza dezan.



Bi probintziak osatzen duten lurraldearen gehiena basamortua da. Iparraldean Saguia el Hamra dugu, eta 82.000 kilometro koadroko azalera du. Hegoaldean Rio de Oro, 184.000 kilometro koadrokoa. Lautada bat bada ere, gora doa kostaldetik barnealdera, eta muinorik altuenak 400 metrokoak dira. Landaretza eskasa da; arkazia, atila, turya, palmondoa eta zenbait sendabelar. Animalien artean hegazti eta arrain ugari aipa daitezke. Ugaztunen artean aipagarriak dira gazela, antilopea, basahuntza, fenekua eta katamotzak.

Orografiari dagokionez, aipagarriak dira Guergarateko **sebja*** ize-neko depresioak eta duna fosilak; iparraldean Gaada eta Draako **hamada*** edo mesetak; Tiriseko desertu-lautada hegoaldean; Zemuur granitozko mendiak barnealdean; eta Adrar Sutufeko basaltozko mendikateak hego-ekialdean.

Herialdearen barnealdean udaren eta neguaren artean hotz-beroen aldaketa izugarriak eragiten dituen klima semidesertikoa da nagusi. Euriak ez dira batere erregularrak eta urteko batez besteko kopurua 30mm-koa da. Alisioa eta kondairetan hainbestetan entzun den sirokoa dira gehien mugitzen diren haizeak, eta azken horrek hareak ekaitz ikaragarriak eragiten ditu. Kostaldeko 1.060 kilometroetan leunagoa da eguraldia, eta barazkiak ere hazten dira. Arrain-sardak eta El Aaiundik 90 kilometrora dauden fosfato tokiak dira ondasun natural nagusienak... momentuz.

Teknikari espainiarrek 1974an egin zuten erroldaren azken neurketaren arabera, 73.479 biztanle zituen orduan Saharak. Gaur egun 200.00 pertsona inguru bizi dira Tindufeko kanpamenduetan, eta, horiei, Marokok okupaturiko zonaldean, askatutako tokietako nomadak eta Mauritanian bizi diren etorkinak gehitu behar zaizkie. Guztira 465.000 inguru dira sahararrak.

Euren lur aberatsak marokoarren eskuetan daudenez, saharar gehienek basamortua hartu dute bizitoki. Arabiar Errepublikak Saharak Demokratikoa estatu aske gisa onartua dago 74 estaturen eta ONUren babesarekin. Oraindik, ordea, Marokoren mende, borrokan jarraitzeko prest jarraitzen dute.

Euskal Herrikoa bezala, hango gatazka politikoa ere aspalditik datorren gauza da. 34 urte pasatu dira autodeterminazio eskubidea aldarrikatu zutenetik eta Fronte Polisarioa ofizialki sortu zenetik. 34 urte daromatxate kanpamenduetan bizitzen. Gazteak basamortuan jaiotako eta hazi dira eta helduenak, aldiz, Mendebaldeko Saharan, euren jatorrizko lurretan.

Basamortuko bizimoduak ez du zerikusirik gurearekin. Baina, Mendebaldeko Sahara ez da desertua soilik. Hainbat kilometroko kostadago han ere. Hala ere, euren lurra okupaturik daude eta jazarpena handia da. Baina, zer dakigu guk Saharako umeei buruz? Hango ohiturei buruz? Zelakoa da paisaia? Eta herria? Zelan bizi dira, finean?

■ Atalaren berrikuspena

- 1 Zer esan nahi du Sahara hitzak?
 - a) Populatu gabeko lurra
 - b) Sahararren lurraldea
 - d) Lurra, arabieraz

- 2 Zergatik dira dromedarioak sahararren bidaia-lagun fidelak?
 - a) Beroa eta egarria primeran aguantatzen dituztelako
 - b) Etxea zaintzen dutelako
 - d) Beren haragia jatea beharrezkoa delako basamortuan irauteko.

- 3 Zer dago Guergarat-eko depresioan?
 - a) Fosfatoa
 - b) Gatz-harritua
 - d) Kobrea

- 4 Zelan dauka izena kondairetako haize famatuak?
 - a) Siratea
 - b) Sirokoa
 - d) Desertuko urakana

- 5 Zenbat pertsona bizi dira Tinduf-eko kanpamenduetan?
 - a) 100.000 pertsona
 - b) 80.000 pertsona
 - d) 200.000 pertsona

Emaitzak:

1 a	2 a	3 b	4 b	5 d
-----	-----	-----	-----	-----

- Zergatik da aberatsa Mendebaldeko Sahara?
- Zenbat urte daramatzate kanpamenduetan bizitzen? Zergatik?
- Afrikako zein aldetan dago Mendebaldeko Sahara?
- Zelakoak dira basamortuko baldintzak? Zergatik?
- Nolakoa da landaretza?
- Zein dira Mendebaldeko Saharan aurki ditzakegun ugaztunak?

■ Hiztegia

Hasani: kanpamenduetako mintzaira, arabieraren dialekto bat

Sebja: depresioak, Guergaraten gatz-harritua dago, 4-5 kilokoak dira eta kalitatez onak izan ez arren (ez daukate iodorik), jangarriak dira

Hamada: meseta



Historia

Sagua el Hamra eta Rio de Oro erabat orlegiak izan omen ziren noizbait. Historia hasi aurretik, landaretza aberats batek estali omen zituen hango mendi eta ibarrak. Hainbat motatako animaliak ere ohikoak ziren. Denborarekin lurralde horiek basamortu bihurtu eta ekialdetik zetorren erlijio berri bateko mezulariek populatu zuten lurraldea.

Zortzigarren mendean, kontinentearen beste aldetik ailegatu ziren inbasoreek Mahomaren doktrina zabaldu zuten Iparraldeko Afrikan, Yihad edo Gudu Santuaren bitartez. Arabiar penintsulatik zetozen yemendarrek Mendebalderainoko bide luzeari ekin zioten hiru mende geroago. Hirurehun urte pasatu ziren tribu haietako bat, **maquil*** izenekoa, Atlantikoko kostaldera iritsi eta beraien hezkuntza zein erlijioa hango eskualdeetan hedatzen hasi zirenetik.

Barne borroka ugari izan zituzten lurralde haiek banatzeko. Azkenik, tribu hartako familia bi gelditu ziren Saharan betiko. Ulad Delim-goak iparraldean nomada gisa ibili ziren eta Beni Hasandarrak hegoaldeko ibaietako ertzetan bizitzen hasi ziren, herriak sortuta.

Garai hartan izugarri handitzen ari zen merkataritza iparraldeko Afrika osoan. Gameluzainen karabanak basamortuko bideetan

barrena ibiltzen ziren. Trukean aritzen ziren, hegoaldeko urrea eta marfila, iparraldeko ehunaren, metalaren eta gatzaren truke.

Hamabosgarren mendean, hurrengo garaietan eragin handia izan zuten gertakizunak ekarri zituen historiak. Espainiarrak eta portugaldarrak Saharako kostaldeetan lehorreratu ziren, Merkataritzaren bideak eta Susaneko urre meatzeak konkistatu nahian.

XVIII. mendearen hasieran portugaldarrak toki zehatzetatik Mendebaldeko Saharara sartzen saiatu ziren. Sahararrek Espainiarekin akordioa zuten, 1880ra arte janariaren truke espainiarrek saharar lurretan arrantzatzeko. Akordioak lau urte iraun zuen, Espainiak Mendebaldeko Sahara kolonizatu zuen arte.

Espainiarrei ez zitzaien interesatzen herri sahararra kulturaduna izatea, 1970ean gazteak ohartu ziren Espainiak arraina, fosfatoa... eramaten zituela, trukean ezer eman gabe. Inoizko manifestazio jendetsuenak egin ziren eta sahararrek independentzia aldarrikatu zuten. Espainiar legioak, sahararrak tirokatu eta hainbat hil zituen. Orduan, 1973an eratu zen ofizialki Fronte Polisarioa.

Aipatu behar da, 1970etik "Martxa Berdera" arte (1975) hainbat izan zirela behartuta Mendebaldeko Saharan soldaduska egin zuten euskaldunak. Bu-Craa-ko harrobietako fosfatoa eta beste hainbat ondasun lapurtu eta deuseztatu zituzten Francoren Espainiak eta diktadurak.



Eibartar bat (Xanti López Baglietto) eta aleman bat. Espainiar "legionarioak" Fox Bucra-ko harrobietara bidean 1971.urtean

Soldaduak, Via Cisneros-en, Aargub-en, Bir Emzaran-en, Ausserd-en, hegoaldean eta Aaiun-en, Samaran eta beste batzuk Edchera-ko kartzelan ere egon ziren, iparraldean. "Martxa Berdeak" abiarazi zuen saharar herriaren askatasunaren eta biziraupenaren aldeko borroka agonikoa.

Orduko bonbardaketen ondorioz minusbaliodun mordoa dago egun. Aipatu, Aljeriak (1962an Frantziatik askatu ondoren) eta Libiak asko lagundu diotela saharar herriari. Pertsonen aurkako minak eta haien aztarnak ere ugariak dira.

Historia garaikidearekin amaituko dugu atal hau. Zenbait erakunderen eta munduko eskualde hartako herrialde batzuen laguntzaz, Tindufen bizi ahal izateko behar zen espazioa sortzeari ekin zitzaion. Lekua ez zuten kasualitatez aukeratu; Aljerian egonik, marokoarrak ezin pasatu zitezkeenez, lekurik ziurrena zen. 1979an Mauritaniako



EL UALI. El Uali, Fronte Polisarioaren sortzaile eta liderra. Erakunde honek saharar herriaren eskubideak defendatzen ditu, egun marokoarren mende dauden Mendebaldeko Saharako lurak, hain zuzen ere.

indar militarrek Mendebaldeko Saharatik irten ondoren, populazio sahararraren zati bat Marokoko soldaduek inguraturik gelditu zen. Beste batzuek, **Ilamada*** lehorrean bildu zirenek, erbestean estatu bat eraikitzeari ekin zioten. Lor zitekeen eraginkortasunaren arabera banatu zituzten zereginak. Gizonezkoek armak hartu zituzten fronte militarrean. Emakumezkoak eta zaharrak, ostera, populazioaren hezkuntzaz, administrazio lanez eta “erretaguardia” mantentzeaz arduratu ziren. Miraria geldiezina zen jada.

Kronologia: Mendebaldeko Sahararen Historiako data esanguratsuenak

- 1704 Portugaldarrak Mendebaldeko Saharan sartzen saiatu
- 1880 arte espainiar Estatuarekin akordioa; janariaren truke saharar uretan arrantzatzeko
- 1884 Espainiarrek Sahara kolonizatu
- 1945 arte Saharako hiriburua zen Ifni Marokori eman zion Francisco Franco jeneralak
- 1970 ekainaren 17an, Zmla-n (Aaiun), sekretuan eratu zen Fronte Polisarioa
- 1973 Fronte Polisarioaren lehenengo ekintza armatua espainiarrek Janga-n zuten postu militarrean; teniente bat, sarjentu bat eta sei soldatu bahituta
- 1975 urriaren 30ean Juan Carlos Borboikoak xantaia: tribuetako buruzagien aurrean Mendebaldeko Saharari independentzia zin egin
- 1975 azaroaren 14an Sahararen banaketa: hegoaldea Mauritaniarentzat eta iparraldekoa Marokorentzat. Sahara, Maroko eta Mauritaniarekin gerran hasi

- 1975 Hagako Nazioarteko Justizia Tribunalak sahararren autode-terminazio eskubidea onartu
- 1976 otsailaren 27an eratu zen Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoa, espainiarrek Sahara abandonatu eta gero
- 1978 Mauritaniak etsi egin zuen eta Sahararekin bake-hitzarmena sinatu
- 1979 Saharako gazteriak manifestazio jendetsuetan independentzia aldarrikatu
- 1980 Mauritaniak Saharako Errepublika Estatu gisa onartu
- 1990 Fronte Polisarioaren su-etena
- 1991 NBEko Segurtasun batzorde batek Mendebaldeko Sahararako bake-plana eta autodeterminazio erreferenduma egiteko egutegia onartu
- 1992 Bake Planeko batzorde batek 74.000 saharar zenbatu zituen, baina Marokok aurrera egitea ekidin zuen

■ Atalaren berrikuspena

1 Zer da Afapresa?

- a) Amnesty International erakundeak Mendebaldeko Saharan duen ordezkartza-taldea
- b) Preso eta desagertu sahararren senideen elkarte
- d) Saharako presoek elkarrekin

2 Merkataritza Ipar Afrika osora hedatzen hasi zenean...

- a) Iritsi ziren espainiarrak sahararren lurretara
- b) Hegoaldeko urrea eta marfila, iparraldeko ehunarekin, metalarekin eta gatzarekin trukatzeko zuten
- d) Gameluzainen karabanak basamortuko bideetatik ibiltzen ziren

3 Portugaldarrak noiz saiatu ziren serioski Mendebaldeko Saharan sartzen?

- a) 1704an
- b) 1652an
- d) 1880an

4 El Diario del Siglo XX espainiar egunkariak nola definitu zuen Mendebaldeko Sahararen okupazioa?

- a) Bake-misio gisa
- b) Marokoar erreboltairen aurkako neurri bezala
- d) Euren lan bikain gisa

5 Zer ospatzen dute sahararrek urriaren 12an?

- a) Gudarien eguna
- b) Fronte Polisarioaren sorrera
- d) Sahararen Batasun Nazionalaren eguna

6 Noiz eratu zen Saharako Arabiar Errepublikak Demokratikoa?

- a) 1976an
- b) 1980an
- d) 1979an

Eraitzak:

1 b	2 b	3 a	4 a	5 d	6 a
-----	-----	-----	-----	-----	-----

■ Hiztegia

Jihad: Gudu Santua

Fronte Polisarioa: Sahararen askapenerako gerrilla

“Martxa Berdea”: 1975ean, Espainiaren oniritziarekin, Mendebaldeko Saharan 300.000 soldadu marokoar sartu ziren.



Mendebaldeko Sahara, sahararren jatorrizko lurraldea

Mendebaldeko Saharako klima beroa da. Dajlan, adibidez, udan izugarritzko beroa egiten du, 40 gradu inguru eta neguan 18-20° inguru. Temperatura atsegina, ezta? Hori bai, oso euri gutxi egiten du eta klima, oro har, Kanariar uharteetakoaren antzerakoa da. Saharatik Kanariar uharteetara hogeita minutu daude hegazkinez.

Asko harrituko dituen datua da Mendebaldeko Saharak ia 1.100 kilometroko kosta duela. Dajla itsasoaren mailan dago ia, Bermeo bezala. Itsasoz inguratuta dago eta itsas portu zein portu internazional polita dauzka. Arrantzarako ontziak zein merkataritzakoak, bietarik dago. Nazioarteko aireportua ere badago bertan, baita Aaiun hiriburuan ere. Gaur egun, Dajla-ko 100 herritarretatik % 80 kanpamenduetan bizi dira.

Marokoren jarrera esplotatzailearena da, sahararren mineral, itsaski eta arrainen aberastasunaren jabe direlako. Lurralde aberatsa da sahararrena eta, beraien iritziz, hori izan zen erasorako arrazoia. Petrolio ugaritasuna da beste arrazoi bat; Marokoko gobernuak ustia-ketarako hitzarmenak sinatu ditu multinazionalekin. Maroko legez kanpo dago sahararren lurraldean eta sahararrek euren etorkizuna erabakitzeke eskubidea baino ez dute eskatzen.

Asko maite dute euren herria sahararrek. Baina etxerik gabe, zer egin zezaketen? Zer egingo genuke guk etxe eta lur barik? Euren herriari dioten maitasunagatik, euren kulturaren oinarritutako heziketa jaso dute. Horregatik, baldintza txarretan bizi arren, sahararren artean gutxiak emigratu dute eta urrutira joan direnak beti daude itzultzeko prest.

Mendebaldeko Sahara Marokoko gobernuak eraikitako harresi handi batek banatzen du bitan. Rabaten kontrolpean dago kostaldea eta lurraldearen % 70 hartzen du. Gainontzeko % 30a Fronte Polisarioaren menpe dago, Mauritania eta Aljeriarekin mugan.

Lau probintzia handi daude Mendebaldeko Saharan; Aaiun, hiriburua, Smara, hiriburu santua, Dajla eta Auuserd. Mendebaldeko Saharak alde bi ditu. Iparraldekoa, Saguia El Hamra da. Hegoaldekoa, berriz, Río de Oro, Uad-Zahab arabiarrez. Basamortua alde bietan dago. Saguia El Hamra ibai gorria da, Sahara bitan banatzen duena. Ibai ikaragarri handia da, baina lehorra. Uad-Zahabek, aldiz, kostaldea dauka eta arrain piloa, horregatik da aberatsa. Ez da ibaia, izenak hori adierazi arren. Arrain asko dago; otarrainak, almejak, kalamarak, olagarroak, porzebak, muxilak, barraskiloak... horregatik deitu zieten Urrezko Ibaia espainiarrek.

Seguia el Hamra eta Río de Oroko jendea ezberdina da harrematarako eran, laguntzerakoan... Urrezko Ibaikoak irekiagoak omen dira...

Korana da musulmanen heziketaren oinarria. Batzuk malgutasun handiagoz hartzen dute otoitz ordua, baina guztiek egunean bost aldiz otoitz egiten dute. Elikatzeko animaliak hil behar dituztenean ere, Mecara begira egiten dute. Musulmanek meskita dute elizaren ordean. Limsia meskita Dajlan dago. Ostiraleko otoitza sakratua da musulmantzat. Goizeko sei eta erdietatik gaueko hamaikak arte, ordu erdiko bost otoitz dituzte egunero.

Mendebaldeko Saharan errepide onak daude, baina kanpamentuetan desertua bakarrik dago eta autoak ataskatuta gelditzen dira. Horregatik erabiltzen dituzte zortzi pertsonako Land Rover-ak. Edo-

zein familiak ez dauka kotxerik. Dirua duen jendeak espainiar Estatuan bajaran emandako lur orotako auto zaharrak erosten ditu.

Dajlatik kanpamenduetara alde ederra dago. Kanpamenduetan ez zegoen ezer. Mendebaldeko Saharan, aldiz, errepide onak daude, taxiak, zinemak, telebistak, hondartzak eta abar... baina kanpamenduetan ez zegoen ezer... errefuxiatu sahararrek eraiki zuten arte. Dajlan eta Ayunen zinemara, antzerkera, kiroldegira... joan daiteke egun, adibidez. Kultura Ministerioak dauka gauza horien ardura.

Smara kenduta, Mendebaldeko Saharako gainontzeko hiriak urte luzez zonaldean zeuden potentzia kolonizatzaileen eta sahararren arteko harremanen emaitza dira. Espainiarrek fundatu zituzten Dajla, el Aaiún eta La Güera. Ezberdina da Smara hiriaren historia. 1898an, Ma el Ainin cheij-ak, hiria eraikitzeko agindu zuen, larretan aberatsa zen zonaldean, iparralderantz zihoazen karabanak kontrolatzeko kokagune egokian. 1913an, frantsesen zigor-operazio baten ondorioz partzialki suntsitu zuten hiria.

Saharako jendea bihotz onekoa da; laguntzeko prest egoten dira, irekiak dira eta egoera latzak bizi arren, ez dute umorea galdu. Auzokideak, tea hartzeko eta hizketan aritzeko batzen dira. Jaima barruan emakumeak agintzen du eta handik kanpora, gizonak. Normalean familian bazkaltzen duten arren, festa dagoenean bereizirik jaten dute gizonak eta emakumeak.

Nomadak bizimodua ere aldatu da urteetan zehar. Garai batean aske ziren azienda eta artzainei mugak jarri zizkien gerrak. Aspaldiko azoka zaratsutsuak ere desagertu egin dira.

Familia batzuek uraren eta zelaien bila jarraitu zuten askatutako zonaldean, Marokok altxatu zituen harresietatik aske den lurraldean. Bi metroko altuera eta luzeran bi mila kilometro baino gehiago dituen harresi honek, Iparraldeko eta Mendebaldeko lurraldeak hartzen ditu. Beste aldean gerrillariak eta nomadak bizi dira, artzainen gizartearen ohiturak gorde dituztenak. Izarrak, harri bat edo sasi ezberdin bat, hondarrezko hodeiertetik oasiraino gidatu dezaketzen seinaleak dira nomadentzat.

■ Atalaren berrikuspena:

1 Ze herrialderekin egiten du muga Mendebaldeko Saharak?

- a) Maroko, Aljeria eta Ozeano Atlantikoarekin
- b) Aljeria, Mauritania, Kanariar Uharteak eta Marokorekin
- d) Aljeria, Maroko, Mauritania eta Libiarekin

2 Zein da Mendebaldeko Saharako hiriburua?

- a) Dajla
- b) Smara
- d) Aaiun

3 Zer eskatzen dute sahararrek?

- a) Lurra eta janaria
- b) Etorkizun duinagoa
- d) Autodeterminazio eskubidea

4 Zein da gameluaren eta dromedarioaren arteko ezberdintasuna?

- a) Gameluak konkorrak bi dituela eta dromedarioak bat
- b) Gameluak konkorrak bat dituela eta dromedarioak bi
- d) Konkorrak bina dituzte biek, baina gameluak lepo luzeagoa du

5 Non batzen dira musulmanak otoitz egiteko?

- a) Senide nagusienaren etxean
- b) Eskolan
- d) Meskitan

6 Nortzuk dira nomadak?

- a) Lurrik gabeko sahararrak
- b) Marokok altxaturiko harresietatik aske den lurraldean bizi diren artzainak
- d) Euren aziendekin Marokotik etorri diren ibiltariak

7 Zein da arabiarren eta musulmanen arteko desberdintasuna?

- a) Musulmanak (Mahomaren jarraitzaileak) mundu guztian dardela, ez herrialde arabiarretan bakarrik
- b) Ez dago herrialde arabiarrik ez herrialde musulmanik
- d) Pirinioetako biztanleen eta Kristauen artean dagoena
- e) a eta d zuzenak dira

8 Noiz kolonizatu zuten Mendebaldeko Sahara espainiarrek?

- a) XIX. mendearen bukaeran
- b) XX. mendearen hasieran
- d) XIX. mendearen hasieran

Emaitzak:

1 b	2 d	3 d	4 a	5 d	6 b	7 e	8 a
-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

■ Hiztegia

Safina: txalupa

Uad-Zahab: Rio de Ororen berezko izena. Leku aberatsa da, arrain asko dagoena

Korana: musulmanen liburu santua

El Darraa: gizonezkoaren jantzia

Mel-Hafa: emakumezkoaren jantzia

IV

Errefuxiatuen Kanpamenduak

Kirmen Uribe

Kirmen Uribe • idazlea

«Egun seinalatua iritsi zenenan Jainkoak nazio guztiak deitu zituen biltzarrera. Gutxika-gutxika mundu zabaleko nazio guztiak hurbildu ziren harengana. Jainkoak alboan lur banatzailea zeritzon gizon bat zeukan. Nazio bakoitzari herrialde jakin bat ematea zen haren betebeharra eta horretarako Jainkoaren oneritzia behar zuen. Baina tamalez gauzak ez ziren behar bezala atera. Nazio batzuk egokitzen zitzaiena baino lur gehiago lortu zuten banaketa ez zelako tajuz egin. Ondorioz ez zen nahi-

koa lurrik geratzen guztientzat. Jainkoaren egunik onena ez zen hura izan. Aldarte txarrez zegoelarik, bazter batean zeuden alproja batzuei begira jarri zen. Eta lur banatzaileari galdetu zion ea nortzuk ziren horren itxura txarra zeukaten horiek. ‘Horiek, horiek sahararrak dira jauna’ erantzun zion banatzaileak. ‘Ongida’, erantzun zion Jainkoak, ‘gaur buruko minez nago eta oraingoz gera daitezela desertuan, denda batzuetan, eta aurrerantzean aurkituko diegu tokiren bat’. Horixe esan eta Jainkoa atsedean hartzera joan zen. Gaur arte». •

Errefuxiatu sahararren kanpamenduak gaur egungo esperientzia harrigarrietako bat dira. Probintzia modura antolaturiko lau iwilya* edo kanpamendu handitan banatzen dira ia berrehun mila binztanle. Kanpamenduon izenak euren aberriko lau hiri garrantzitsuen berdinak dira; Aaiun, Dajla, Ausserd eta Smara. Idaira* izeneko udal txikietan banatzen dira lau zonaldeak. Ausserd kanpamendutik Aaiun kanpamendura 20 kilometro daude.



Kanpamenduetan egindako marrazkia. Zer da?



ERREFUXIATUEN KANPAMENDUAK. Hara iristeko Aljeriako Tindufeko aireportu militarrean hartu behar da lurra. Mauritaniatik Egiptoraino doan errepide estuan sartu eta ordu erdian Smarako wilayara (hemen probintzia dena) iritsi gara, Tindufeko Hammadara. Nazio Batuetako Segurtasun batzordearen arabera erreferenduma egin arte lurralde honek ez du jaberik eta erabakigarria da hori sahararren bizimoduaren egoera ulertzeko.

Herriko gobernariak, kontseiluen eta herri batzarren bidez aukeratzeko dituzte. Dirurik ez dago, baina arreta handiz banatzen dira jantziak, arropak edota beharrezko gauzak (botikak, konpresak...).

Marokok sinaturikoa bete arte, sahararrek ez dute etsiko, horretarako berriz armak hartu behar badituzte ere. Herri honen ilusioa ez dute erraz zapuztuko, ez horixe.



Gerra gogorra pairatu dute eta ondorioak nabariak dira. Saharako familia guztietan dago tragediaren bat. Torturatuak eta desagertuak ugari izan ziren. Horregatik, beharbada, umeen alaitasunaren atzean helduen aurpegiak tristeagoak dira. Denbora pasatzera ohituta daude, baita gauza gutxirekin bizitzera ere. Jasotzen duten laguntza eskertzen dute eta aurrera jarraitzeko prest daude, familia asko banatuta egon arren.

Espainiar Estatuarentzat lan egin zuten zibilek zein militarrek gobernuaren diru-sari bat jasotzen dute hilero (6.000 E gehienik). Besteek baino diru gehiago dute, besteek ez dutelako dirurik eta giza laguntzatik bizi direlako. Giza laguntza hilero banatzen da; guztiei janari kopuru berbera. Saharako lehendakariak ere gainontzeko herri-tarrek adina jasotzen du.

*FESTA
KANPAMENDUETAN.
Baldintza txarretan pozik
bizitzen dakiena erraz
moldatuko da baldintza
hobeagoetara. Saharar
herria aske den egunean,
beraien jatorrizko lurretan
egingo dituzte
ospakizunak. Bitartean,
basamortua kolorez eta
pankartaz josten
jarraituko dute jai
egunetan.*



Bizilekua

Jaima handiak eta adobezko etxeak dira kanpamenduetako irudi esanguratsuena. Kanpotik bisitan doan jendearentzat aipagarriena basamortuko beroarekin eta hain ur gutxirekin bizitzeko gaitasuna da. 45-46 graduko tenperaturetan, txapa metalikoarekin, frigorifikorik eta ur hotzik gabe... guk ez dakigu hori zer den...

"Hona iritsi ginenean ez zegoen deus. Deus ere ez. Gaur egun kanpamendu guztiek daukate beren eskola, ospitalea eta baratza. Basamortu honen barruan gorderik zegoen ura kanpora aterarazi dugu. Lehenago kulturarik gabeko herri bat ginen eta orain, heziketa denengana iritsi da. Ez al da miraria hau guztia?"



JAIMA zuzen mantentzeko eta eusteko erabiltzen dituzte sokak, 24 guztira. Gauza guztiak baliagarritasunaren arabera egin behar dira basamortuan. Lonazko dendetan bizi dira, lerroan elkarren ondoan auzoak osatuz. Eraikuntza bakarrak adobezkoak dira.

“Barraskiloen antzera, etxea gainean daramagula, lonazko **jaima*** bat aterpe bakarra eta **yemel*** edo gamelua, mirarien herritik etorrirako animalia bidaia-lagun fidela”.

Heziketa

Hezkuntzaren alorrean hobekuntza handiak izan dira kanpamenduetan. Duela 40 urte analfabetismoa zegoen, baina 1975etik aurrera ez. Fronte Polisarioak garrantzi handia eman zion hauren heziketari, arabiarrez zein gaztelaniaz. Gainera, Kubarako atea ireki ziren sahararentzat. Saharak harreman diplomatikoak zituen Kubarekin eta urtero, 14-15 urteko gazteak Isla de la Juventudera joaten ziren. Ekonomikoki bidera ezina gertatzen zitzaionez, Kubak jada ez ditu Afrikako ikasle gehiago bere gain hartuko.

Korana da musulmanen heziketaren oinarria. Batzuk malgutasun handiagoz hartzen dute otoitz ordua, baina guztiek egunean bost aldiz otoitz egiten dute. Elikatzeko animaliak hil behar dituztenean ere, Meca-ra begira egiten dute. Musulmanek meskita dute elizaren ordez. Limsia meskita Dajlan dago. Ostiraleko otoitza sakratua da musulmanentzat. Goizeko sei eta erdietatik gaueko hamaikak arte, ordu erdiko bost otoitz dituzte egunero. Gustura egiten dute, Korana baita musulmanen funtsezko oinarria.



HEZIKETA ona eta, bereziki, pertsona nagusiekiko begirunea oso balio errespetatuak dira eta eskolan ere, bizitzan balioko dieten gauzak irakasten dizkiete. Internet ere iritsi da kanpamenduetara, azpiegiturek, baina, apaindu arren, hutsune asko dituzte.

1975etik aurrera Sahararen historia erakusten da eskoletan. 14-15 urtera arte kanpamenduetan ikasten dute eta ondoren batzuk kanpora joaten dira ikasketak jarraitzera. Urriaren 12a eta ekainaren 9a 14-15 urteko gazteentzako barnetegiak dira, jai nazionalen omenez jarritako izenak eurak. Haurtzaindegiak eta eskola lau auzoetan daude. Eskolara 5-6 urterekin hasten dira, haurtzaindegitik igaro ondoren. 12 urtetik aurrera gutxi gorabehera eskola barnetegietara joaten dira.



SAHARAKO eskoletan, lehen hezkuntzan 32.000 ikasle ari dira, eta bigarren hezkuntzan 600. Desertuko errealitate gordina ezagutu ez ezik, heziketa zabalagoa ere jasotzen dute Saharako haurrek.



**EKAINAREN 9a
IZENENKO
ESKOLA.**

Irakaslea lanak zuzentzen eta ikasle bi eserita. Parekidetasuna, hau da, gizon-emakumeen arteko berdintasuna garrantzitsua da sahararrentzat.

Ez daukanari ematen

SAHARAKO HEZKUNTZA SISTEMA. Saharako irakasleak prestatuko dituen zentro pedagogikoa sortzeko lanean laguntzen ari da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila

ANNA KORTAZARREKALDE (1)

A Del Altiñak bereziki Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailaren bidez berriro berriro dabilen. Argaitasun handian ikasita egon da irakur, baina ez du ikasleekin lan egiten. Saharako irakasleak prestatzeko proiektua garatzen ari da baina berriz ez du irakasleekin lan egiten. Argaitasun handian ikasita egon da irakur, baina ez du ikasleekin lan egiten. Saharako irakasleak prestatzeko proiektua garatzen ari da baina berriz ez du irakasleekin lan egiten.

Saharako Gobernuak eta Euzko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak aurreratu dituen proiektu baten barnean da. Baina ez du ikasleekin lan egiten. Saharako irakasleak prestatzeko proiektua garatzen ari da baina berriz ez du irakasleekin lan egiten. Saharako irakasleak prestatzeko proiektua garatzen ari da baina berriz ez du irakasleekin lan egiten.

Horien artean egon daude Saharako irakasleak prestatzeko proiektua garatzen ari da baina berriz ez du irakasleekin lan egiten.



SAHARAKO irakasleak prestatzeko proiektua garatzen ari da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.

proiektuaren barruan. Baina ez du ikasleekin lan egiten. Saharako irakasleak prestatzeko proiektua garatzen ari da baina berriz ez du irakasleekin lan egiten.

proiektuaren barruan. Baina ez du ikasleekin lan egiten. Saharako irakasleak prestatzeko proiektua garatzen ari da baina berriz ez du irakasleekin lan egiten.

proiektuaren barruan. Baina ez du ikasleekin lan egiten. Saharako irakasleak prestatzeko proiektua garatzen ari da baina berriz ez du irakasleekin lan egiten.

proiektuaren barruan. Baina ez du ikasleekin lan egiten. Saharako irakasleak prestatzeko proiektua garatzen ari da baina berriz ez du irakasleekin lan egiten.

Osasun zerbitzuak

Herri bakoitzeko anbulatorioan hiru erizain daude, gizona bat eta emakumezko bi. Beraiek lagundu ezin badute, probintziako ospitalera joaten dira, ginekologoa eta pediatria dauden tokira. Kirofanotik pasatu behar direnak, Raboniko ospitale nagusira eramaten dituzte. Azterketa sakonago bat egiteko, automatikoki Arjelera, non gaixo sahararrentzako etxeak dauden. Gaixotasuna oso konplikatua denean, espainiar Estatu-ko medikuek artatzen dituzte. Sahararrentzat oso garrantzitsua da sendagile edo erizain ikasitako jende gaztea edukitzea.



Smarako ospitaleko "Amatasunaren" gela. gaixoa ingresatuta dagoen bitartean senide bat edo bi berekin gelditzen dira; gaua pasatu, errekaduak egin eta behar duenean laguntzeko.

Medikamenduen eskasia handia da basamortuan. Kanpotik bidaltzen dituzte botikak eta familiakoak Euskal Herrira datozenean erosten dituzte, adibidez. Erraz gaixotzen dira, baldintzen ondorioz. Gainera, gizon askok gaixotasun fisiko esanguratsuak dituzte, gerratik; asko dira besoa edo hanka falta dutenak, adibidez.

Ohiturak

Tearen zeremonia lagunartean egoteko ohitura garrantzitsua da sahararrentzat. Lehenengoa bititza bezain mingotsa, bigarrena maitasuna bezain gozoa, hirugarrena heriotza bezain leuna.

Emakumeak oso paper garrantzitsua betetzen du saharar gizartean; umeez arduratzen da, arropaz, haur gaixoez, janariaz, garbiketaz... eta horretaz gain, emakume guztiek Fronte Polisarioaren batzordeetan edo lan-taldeetan lan egiten dute.

Artisau lanei dagokienez, Larruzko **lusada*** edo burko bat egiteko, piezak zatika margotzen dituzte. Denak bukatuta batu egiten dituzte, josteko. Tabakoa gordetzeko **beit*** edo "pitillerak" eta larruzko giltxakiak edo **llama***-k ere horrela egiten dituzte. Magra Artisauek eskuz egindakoa da, kobrezkoa. Tea egiteko, ura (zein beste edozer) berotzeko balio du.



SAHARAKO DANTZAK. *Haul izenekoa musika estilo zabaldua eta preziatua da Mendebaldeko Saharan, Mauritanean, Malin eta Aljeriako hegoaldean. Haul-aren barruan zazpi estilo bereizten dira, errezitaldi bakoitzean ordena gogorrez konbinatzen direnak. Estiloetako bakoitzak gudari, maitasunari, edertasunari edo lurraldeari egiten dio erreferentzia.*



DAJLAKO BARATZA. Baldintza onenetan dagoena berau da, nahiz eta otarrainen plagak uzta guztia izorratu izan duen. Egunero Aljeriarhammadako klimaren aurka borrokan jarraitzen dute emakumeek.



BARATZA. Kanpamenduetako probintzi bakoitzak bere baratza dauka. Batez ere kipula eta azenarioa landatzen dira eta neguan emaitza onak lortzen dituzte. Barazkien bilketa sasoia denean, furgonetetan banatzen dituzte. Arrazonamendua guztientzat berdina da eta Media Luna-koak arduratzen dira pertsona guztieei jakiak bermatzeaz.

Basamortuan, kostata baina ortuariak eta barazkiak landatu eta hazi daitezkeela sinesten ez baduzue... saharar errefuxiatuen kanpamenduak ikusi ez dituzelako izango da. Izan ere, Kanpamenduetako probintzia bakoitzak bere baratza dauka.

Janaria



- **CUS-CUS:** Jaiman mahaiaren inguruan bilduta, cus-cusa jateko prest. Arkumearekin izugarri gustatzen zaie.
- **CUS-CUS:** Emakumeek egiten dute, irinarekin. Arrozaren antzerako garauak dira.
- **BULGARAM:** Garagar-irina hartu, gameluaren edo ahuntzaren gantzarekin edo esnearekin pasta bat egin eta jan egiten da
- **LIDAM:** Estofatua esan nahi duen hitz hau Saharan eta Mauritania soilik erabiltzen dute. Haragiarekin, kipularekin, patatekin, tomatearekin, azenarioarekin... prestatzen dute. Magreb guztian **tain*** deitzen zaio estofatuari.

Familia bakoitzak duen ganadua gordetzeko, lur-eremuak hezten dituzte. Argazkian ikusten direnak ez dira zabortegiak. Hala iruditu arren, basahuntzak gordetzen dituzten lekuak edo ukuiluen ordezkioak dira. Familia batzuek ganadu gutxi dute eta asko duenak ez duenari ematen dio. Gameluak edukitzea luxua da eta normalean ahuntzekin konformatu behar dute familia gehienek.



GASOLINDEGIA. Eraikin bat, mangerak eta kupelak nahikoa dira lur orotakoei erregaia bota ahal izateko.

Ganadua duenak ez du goserik pasatuko, elkartasuna ez da indibiduala, nolabait esateko, zentzu hertsian, komunitarioa baizik. Egin-beharrak auzolanean egiten dira eta elkartasunak beharra sinbolizatu-ko luke kasuan. Arkumea cus-cusarekin sahararren jaki preziatua da.



HAUR JOLASAK. Egurrezko taula bat edo balio ez duten gauzak dira haurren jostailurako lehengai. Balio dezake harri bati lotutako soka batek, edo autoen gurpil batek. Umeak jolasean aritzen dira eta horretarako beti aurkitzen da zerbait. Ez aspertzea eta geldirik ez egotea dira ume gehienek helburua, Bermeon zein saharar errefuxiatuen kanpamenduetan. Kanpamenduetako basamortuan jaiotako haur sahararrek, euren herriarekiko maitasuna sentitzen dute txikitatik. Irribarre egiten dute edozeinen aurrean eta ez dute ezer eskatzeko ohiturarik. Jostailuak sortzeko irudimena erabiltzen dute, edo basamortu amaiezinean murgildu.

Ogibideak

Diru gutxi dute errefuxiatu sahararrek, baina kanpamenduetan mirariaren usain sarkorra arnasten da airean. Arropa edo kosmetika dendak, telefono kabina, internet, harategia, okindegiak, gasolindegiak... aurkitu daitezke kanpamenduetan.

Espainiar Estatuarentzat lan egin zuten zibilek eta militarrek gobernuaren diru-saria jasotzen dute hilero. Gainontzekoek ez dute dirurik eta giza laguntzatik bizi dira. Giza laguntza hilero banatzen da, guztiei janari kopuru berbera. Saharako lehendakariak ere gainontzeko herritarrek adina jasotzen du.



JANARI DENDA. Bilgune edo berriketarako gune ere bihurtzen da, sendi desberdinek bat egiten dutenean bertan. Ur bidoiak funtsezkoak dira, basamortuko ura ez baita osasuntsua. Haurrek ere etxean laguntzen dute, erosketak eginez, adibidez.

Trukearen kulturak bizirik dirau sahararren artean. Zerbaitetik asko duenak, ezer ez duenari emango dio, beste zerbaiten truke. Kanpamenduetan ia dirurik erabiltzen ez dutenez, elkarrekiko hartu-emanek eta nork zer duen jakiteak garrantzi handia dute hainbat familia bizi diren tokian eta distantziak hain luzeak izaki. Elkarren arteko kontak-tua eta harremanak ere oso garrantzitsuak dira, kontaktuak gertutasu-na adierazten du, adibidez.

■ Atalaren berrikuspena

- 1 Noiz hasi ziren sahararrak Tindufen bizitzeko espazioa eraikitzen?
 - a) 1975ean, Espainiak sahararren lurak Marokori eta Mauritaniari oparitu zizkienean
 - b) 1979an, Espainiaren iruzurraren ondoren lurrik gabe geratu zirenean
 - d) 1973an, Fronte Polisarioa sortu eta jarraian

- 2 Zelakoak dira kanpamenduetako eraikuntzak?
 - a) Ez dago eraikuntzarik
 - b) Lonazkoak
 - d) Adobezkoak

- 3 Nazioartetik iristen zaizkien elikagaiak eta sendagaiak nola eramaten dituzte kanpamenduetara?
 - a) Lur orotako autoak erabiltzen dituzte
 - b) Gameluetan
 - d) Dromedarioek lagunduta

- 4 Zein dira saharar errefuxiatuen kanpamenduetako lau iwilyak*?
 - a) Tinduf, Smara, Aljeria eta Mauritania
 - b) Aaiun, Dajla, Smara eta Ausserd
 - d) Dajla, Samra, Assa eta Aaiun

- 5 Nola aukeratzen dituzte euren ordezkariak sahararrek?
 - a) Kontseiluen bitartez
 - b) Herri batzarretan
 - d) Herri batzarren eta kontseiluen bitartez
 - e) Ezin dituzte aukeratu, Marokok debekutzen dielako

- 6 Zergatik jaso behar luke zigorra Marokok?
- a) Sahararrei autodeterminazio eskubidea ukatzen dielako
 - b) Atxiloketa arbitrarioak, torturak eta justiziarik gabeko epai judizialak ohikoak direlako
 - d) 1976an jada desagertutakoak 200 lagun inguru zirelako
 - e) Denak zuzenak dira
- 7 Zein egoeratan daude Fronte Polisarioak etapa ezberdinetan askatu dituen 400 preso sahararrak?
- a) Marokoren menpe jarraitzen dute oraindik
 - b) Presoentzako zentro berezi batean bizi dira kanpamenduetan eta lan egiten dute
 - d) Beste sahararrak baino baldintza zailagoetan bizi dira
- 8 Zein da kanpamenduetako hizkuntza nagusia?
- a) Hassaniya
 - b) Arabiera
 - d) Gaztelania

Emaitzak:

1 b	2 d	3 a	4 b	5 d	6 e	7 b	8 a
-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

■ Hiztegia:

Ihamada: leku lehorra

Iwilawa: kanpamenduetako auzo bakoitza

“Kulewatan au shahada”: aberria edo hil

Arha: harrizko errota, artoa aletzeko eta irina egiteko erabiltzen dute

- 9 Bisitarientzat, zein da kanpamenduetako gauzarik harrigarriena?
- a) Hain distantzia luzeak egotea eta bakoitzak ur kopuru mugatua edukitzea
 - b) Basamortuko baldintza gogorretan bizitzeko gaitasuna eta kemena
 - d) Frigorifikorik eta ur hotzik ez edukitzea
- 10 Zeintzuk dira heziketaren oinarriak?
- a) Korana da funtsezko bakarra
 - b) Kultura orokorra, klaseak eta prestakuntza militarra
 - d) Begirunea eta lanbidea ikastea
- 11 Zein izen daukate kanpamenduetako eskolek eta zergatik?
- a) Maiatzaren 21a eta urriaren 12a, festa nazionalen omenez
 - b) Ekainaren 9a eta maiatzaren 21a, gudarien omenez
 - d) Urriaren 12a eta ekainaren 9a, festa nazionalen egunak
- 12 Zein egunkari irakurtzen dute kanpamenduetan?
- a) Sevillako izen bereko elkarteak ateratzen duen Sahara Libre
 - b) Kanpamenduetara ez da egunkaririk iristen
 - d) Noizean behin zerbait irakurtzen dute
 - e) Marokoko egunkariak dituzte bakarrik
- 13 Nola banatzen dira kanpamenduetako ikasleak?
- a) Lehen hezkuntza bakarrik dago eta 600 ikasle daude bertan
 - b) Lehen hezkuntzan 32.000 ikasle ari dira eta bigarreanean, 600.
 - d) Lehen Hezkuntza bukatu ondoren Kubara joaten dira
- 14 Saharako irakasleak ondo prestatuta daude, baina zein da arazoa?
- a) Lanerako baliabide urriak dituztela
 - b) Ume gutxiegi daudela eta lanera kanpora joan behar direla
 - d) Ez dutela motibaziorik, soldatak oso txikiak direlako
 - e) Denak okerrak

15 Kanpamenduetan egonda, non dago anbulatoriorik hurbilena?

- a) Kanpamenduan bertan
- b) Rabonin, Ospitale Nagusia dago
- d) Zuzenean Aljerrera joatea da ziurrena

16 1975etik aurrera, zer irakasten da eskoletan?

- a) Tiroketa entrenamenduak egiten dira
- b) Mendebaldeko Saharako historia
- d) Arabieraz irakasten da
- e) Denak okerrak

Emaitzak:

9 b	10 b	11 d	12 a	13 b	14 d	15 a	16 b
-----	------	------	------	------	------	------	------

■ Hiztegia

Jaima: lonazko dendak; kanpamenduetako bizilekua

Yemel: gamelua

- 17 Zein da sahararren erritual nagusia eta lagun-arteko elkarriketa-rako aitzakia?
- a) Gena ematea
 - b) Eskua ematea
 - d) Tearen zeremonia
- 18 Zertarako erabiltzen da **magra***?
- a) Tea zerbitzatzeko
 - b) Sobratutako tea gordetzeko
 - d) Tea egiteko ura berotzeko
- 19 Zer egiten dute emakume artisauek?
- a) Idunekoak eta jantziak
 - b) Larruzko burkoak, pitillerak, giltxakiak...
 - d) Harrizko ontziak eta larruzko burkoak
- 20 Janaria prestatzeko eta zertarako gehiago erabiltzen zituzten lehengo sukaldeak?
- a) Arropak lehortzeko
 - b) Berotzeko
 - d) Argia egiteko
- 21 Zer landatzen da kanpamenduetako baratzetan batez ere?
- a) Tomateak eta tipula
 - b) Azenarioak eta tipula
 - d) Ez dago baratzik
- 22 Zelako idunekoak egiten dituzte emakume artisauek?
- a) Egurrezkoak, arrosarioekin, pertsona nagusiei oparitzeko
 - b) Harrizkoak, kanpoan saltzeko
 - d) Egurrezkoak eta harrizkoak, bietarik egiten dute

23 Zein animalia dituzte kanpamenduetan?

- a) Ardiak, gameluak eta dromedarioak
- b) Gazelak, ardiak eta gameluak
- d) Ardiak, basahuntzak, dromedarioak eta gameluak

Emaitzak:

17 d	18 d	19 b	20 b	21 b	22 a	23 d
------	------	------	------	------	------	------

■ Hiztegia

Magra: Batez ere ura berotzeko erabiltzen den pitxarra

Emracha: Usaina sartzen da bertan

Lusada: Burkoa (gaztelaniaz almohada, arabieratik dator)

Beit: Tabako-zorroa

Yamaa: Larruzko giltxakia

Ilargi Gorria: Hemengo Gurutze Gorriaren ballokidea

El Darraa: Gizonezkoen jantzia

Mel-Hafa: Emakumezkoen jantzia

Egungo egoera

Mendebaldeko Sahara

Halako batean armak hartuko balituzte sahararrek, akabo, hori edonork egin ezin dezakeen gauza da, hori terro-

rismoa da... batzuen denean. Sahararentzat, ordea, ardura nazionaleko kontua da euren lurak defendatzea...



EMAKUMEAK, autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen, kanpamenduetan egindako ekitaldi batean. Emakumeek egoera hau lehenbailehen gainditzeko beharra dute; seme-alabek kanpamenduetan ez dute etorkizunik eta gizon gehienak militarrek direnez, ez dira etxean egoten

Mendebaldeko Sahara

DAJLA HIRIAN atzo izandako manifestazioaren ondoren, Marokoko poliziak sahararren aurka jo zuen.

Marokoko poliziak hainbat saharar zauritu eta gutxienez bat atxilotu du.

“Dajlan manifestazioak eta liskarrak izan dira”

Nazioarteko lekukoaren esperoan

Populazioa: 260.000 biztanle saharar (gehienak Aljeriako errefuxiatu guneetan bizi dira) eta 250.000 kolono marokoar inguru.

Hedadura: 252.120 kilometro koadro.

Hizkuntzak: arabiera, gaztelania.

Erljioa: Islama. SEAD Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa ez da konfesionala.

Bost urte arteko Espetxe zigorra sei gazteri, protestengatik

NBEk Marokori zapalkuntza gelditzeko presio egin diezaiola eskatu dute 104 eurodiputatuak

“Gure askatasunari uko egiteko aukera ederra izan genuen, okupatutako Sahara batean edo Espainian lasai bizi gintezkeen, baina hauxe da gure lekua, erbestean eta askapenaren aldeko borrokan bizi den herriarena”.





SAHARAREN ALDEKO ELKARTASUN EKINTZAK. Ohikoak dira Euskal Herrian. Goian, Sahararren aldeko manifa Bilbon: Ezarritako Autonomiari ez: Erreferendum garaia da. Saharar dexente bizi dira gure artean eta elkar ezagutzeak elkar ulertzea errazten du sarritan. Nazioarteko berriak manipulatu iristen zaizkigu eta informazio kutsatua eta garrantzitsua bereizteko zailtasun ugari izaten ditugu. Marokoren errepresioaren gainetik, iraultza sahararra aurrera, dio beheko argazkiko pankartak. Bizi duten errepresio egoera salatzea eta gertatzen zaiena nazioartean zabaltzea sahararren helburuak dira.





SAHARARRAK ez daude Mendebaldeko Saharara marokoarrak izateko itzultzeko prest. Jazarpena baino nahiago dute basamortuko bizitza; miseria gorrian irautea eta nazioarteko laguntzaren menpe bizitzea.



SAHARAREKIKO JANARIA BILATZEKO KANPAINAK. Sahararren errefuxiatuen kanpamenduetarako materiala biltzeko kanpainak urtero egiten dira Euskal Herriko herrietan. Bermeora etorrira, azken urteetan, kanpamenduetarako 4.500 kilo inguru bildu dira. Ana Ormaetxeak BUSTURIALDEKO HITZA-ri azaldu zionez, "iaz atuna, azukrea eta konpresak behar zituztela jakinarazi ziguten. Aurten, ostera, arroza, lentejak, atuna oliotan eta konpresak dira eskatutako produktuak. Eurek hori eskatu arren, gura dutena ekarri dezakete herritarrek".

■ Atalaren berrikuspena

- 1 Nor da Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoko lehendakaria?
 - a) El Lualy
 - b) Mussami Hamdi
 - d) Mohamed Abdelaziz
 - e) e) Inor ere ez

- 2 Zer salatu dute Mugarik Gabe GKEko kazetariak?
 - a) Kazetariak kolpatuak, galdekatuak eta kanporatuak izan direla
 - b) Apirilean zehar kazetarien aurkako jazarpena mugarik gabe areagotu izana
 - d) Marokoren isilunea

- 3 104 eurodiputatu Nazio Batuen Erakundeko idazkari Kofi Annani bidalitako gutunean zer eskatu zioten?
 - a) Sahararen aurkako zapalkuntza berehala gelditu dezan presionatzeko
 - b) Aterabide bakarra nazioarteak Saharako gatazkari lehentasuna emateaenez, bere esku dagoena egiteko
 - d) Manifestazio baketsuetan jendearen segurtasuna bermatzeko bitartekoak jartzeko

- 4 Zer gehiago nahi dute gutunaren sinatzaileek?
 - a) Manifestazio eskubidea eta adierazpen askatasuna errespetatzea
 - b) Annanek nazioarteko ikerketa batzorde bat eratzea
 - d) Marokok komunikabideei sartzeko uztea
 - e) Denak zuzenak

- 5 Zein da sahararren apustua?
- a) Beste irtenbiderik ezean, askatasunari uko egitea
 - b) Erbestean, askapenaren aldeko borrokan jarraitzea
 - d) Espainian edo okupaturiko Saharan bizitzea
 - e) Denak okerrak
- 6 Aminatou Haider-ek zergatik dio jakinarazi gabeko etxeratzeko aginduan daudela egun Mendebaldeko Saharan?
- a) Hay Maatal auzoan egoera oso larria delako
 - b) Sahararrak beldurtzeko asmoz, Maroko eraso militarrek egiten ari delako
 - d) Gazteak desagerrarazten eta torturatzen eta etxeak miatzen ari direlako
 - e) b eta d zuzenak dira
- 7 Zergatik da ezinbestekoa Espainiako Gobernuaren presioa?
- a) Sahararrak ahaztu dituelako eta bera ere erruduna delako
 - b) Marokok ezarri duen "blokeo" militar eta informatiboari aurre egiteko
 - d) Nazioarteak sahararren autodeterminazioa eta independen-
tzia bermatu behar lituzkeelako

Emaitzak:

1 d	2 a	3 a	4 e	5 b	6 e	7 b
-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

■ Saharar herriarekiko elkartasuna

- 1 Zein lan egiten dute nagusiki Sahararen aldeko Euskal Herriko taldeek?
 - a) Udako ibilaldiak antolatzen dituzte
 - b) Batez ere, elikagaien bilketa kanpainez eta uda pasatzera datozen haur sahararrez arduratzen dira
 - d) Marokoko Gobernuarekin bitartekari lana egiten dute umeak uda pasatzera etortzeko tramiteak azkartzeko

- 2 Mendebaldeko Sahararekiko interesa eta elkartasuna jaitsi egin al dira?
 - a) Ez, baina, ez dugu han gertatzen denaren berri zehatzik
 - b) Haietaz ahaztu egin gara, urrutiegi dago
 - d) Ez, baina, konpromiso politikoa hartzeko eta eskatzeko garaia da
 - e) a eta d zuzenak dira

- 3 Nola banatzen dute kanpotik iristen zaien materiala?
 - a) Modu eredugarrian; furgonetan eraman eta guztiei berdin banatuta
 - b) Banaketarako arazo ugari izaten dituzte eta ez da dena aprobetxatzen
 - d) Familia batzuei besteei baino gehiago ematen zaie

- 4 Zelan dauka izena egoitza Sevillan duen Sahararen Aldeko Elkar-teak?
- a) Amigos Saharawis
 - b) Tierra y Libertad
 - d) Sahara Libre

Emaitzak:

1 b	2 e	3 a	4 d
-----	-----	-----	-----

VI

Uda pasatzera datozen ume sahararrak

BESALDE izena dauka Sahararen aldeko Bermeoko elkarteak (BERmeo SAHararen alde sigletatik). Batzarretan, zazpi-bederatzi lagun batzen dira normalean, udan umeak etxeetan hartzen dituztenak.



AICHA ETA LALA, 2003ko argazki batean. Urteetan etorri dira uda partean Bermeora bi neskatoak. Gotzoneren etxera joaten da Aicha.



4 MUTIKO SAHARAR, IRRIBARTSU. A zer bihurri aurpegiak!

2004an zortzi ume saharar egon ziren Bermeen. Eta 2005ean, hamaika. Uztailaren hasieran iritsi ohi dira, eta irailaren hasieran, hile bi pasa eta gero, itzultzen dira berriro errefuxiatu sahararren kanpamenduetara.

Aipatu behar da elkarteko atea zabalik daudela saharar herriarekiko interesa edo sentsibilitatea duen edonorentzat, udan umeak hartu zein ez.

Ume sahararren lehenengo abizena, aitaren izena da eta bigarrena berriz, aitonaarena. Sahararrek ez dituzte euren urtebetetze egunak ospatzen eta, ondorioz, kalkulatu gabe ez dute jakiten umeek edo helduek zenbat urte dituzten. Jaiotze-dataren arabera kalkulatzeko dute adina, hilabeteak ez dituztelako erabiltzen.

Beste bitxikeri ezberdin bat oraingoan, kanpamenduetan ez dagoela korreo erregularrik. Hegazkin bi joaten dira Aaiunera eta gauzak hara eramateko, norbaitekin bidaltzen dira. Bestela, lokutorio batera deitzen dute, eskaintzen duten gizarte zerbitzuari esker.



Bermeotarrak Melfakaz eta Aicha sahararra, Bermeon

Bermio Sahararen Alde Elkartearen laburdura da Besalde. Saharar herriari laguntzeko lanetaz arduratzen da berau, Euskal Herrian zein errefuxiatuen kanpamenduetan. Urtero egiten den janari bilketa kanpainan kanpamenduetara bidaltzeko lekaleak, atun latak, konpresak... batzen dituzte. Horretarako, fraideetan daukate lokala eta han batzen dira bermeotarrak nahiz sahararrak. Horrez gain, udan etorriko diren umeez ere arduratzen dira. Aipatu behar da datozen haurren kopurua umeok etxeetan hartzeko prest dauden familien arabera izan ohi dela.

Euskal Herrian tokian tokiko udalen kontura izaten da udan umeak etorri ahal izateko bidaiaren gastua. Ume bakoitzaren bidaiak 480-600 euro bitartean balio izaten du eta udalen diru laguntzarik gabe ez lirateke etorriko.

Bermeon dauden sahararrek arazoren bat dutenean, BESALDE elkartera jotzen dute.

VII

Bermeon bizi diren sahararrak

Bermeon hogei saharar inguru bizi ziren 2005ean. 2008an, 64 saharar bizi dira, eta beste 3 Mundakan. Baina horietako batek umea eduki du eta hemen jaio denez, Eneko Mohamed izena jarri diote. Polita, ezta? Guraso sahararrak dituen ume bermeotarra da Eneko Mohamed.



Manana eta Mohamed aita, irribartsu, Manana bizi den Bermeoko etxean.

Guztien erreferentzia eta buruzagia Mohamed Aita da, zaharrena delako eta Bermeon urte batzuk daramatzalako. Mohamed Aita Dajlako da, Mendebaldeko Saharako ekialdeko hirikoa. Gaixo zegoelako etorri zen Euskal Herrira, emaztea eta bost umeak kanpamenduetan utzita. Espainiar kolonizazioaren garaian, osasun zerbitzuetako espainiar funtzionarioa zela ikasi zuen gaztelaniaz.



MOHAMED AITA, gaixotasunagatik etorri zen Bermeora, Andaluzian hiru urtez egon ondoren. Jaurlaritzak errefuxiatu sahararrei diru-saria ematen die, Mohameden kasuan, gaixotasunagatik.

Euskaldunok bezala, sahararrek ere euren nortasun agiria dute, Saharako Arabiar Errepublikak Demokratikokoa, baina, gure moduan, inposaturiko beste nazionalitate bat dute. Mohamedek Aljeriar nazionalitatea ere badauka.

Sahararrak herri moduan oso batuta daudela bistakoa da. Mohameden etxean, adibidez, sarritan batzen dira, sahararrak ia egunero eta bermeotarrak ere bai asteburuetan. Kuban ikasitako Maju gazteak egunero egiten dio Mohamed Aitari bisita bere Txibitxiagako etxera.

Horrez gain, Euskal Herrian bizi diren gainontzeko sahararrekin harremana dute. Umeren baten bataioa, norbaiten ezkontza edo jaiaren bat dagoenean denak batzen dira. Sahararren jaia ere egin zen institutuan, Eneko Mohameden bataioa ospatzeko. Bermeotar ugari eta inguruko saharar guztiak batu ginen bertan.



Mohamed aita eta Manana, tea prestatzen.

Saharar emakumeen ohitura melfarekin ibiltzea den arren, batzuetan buruko zapia bakarrik jartzen dute. Orokorrean oso kontziente dira gure hizkuntza ez dela gaztelania eta ez da harritzekoa Mananaren edo Mohameden etxera deitu eta "bai?" erantzutea. Horrez gain, agurrak, eta berba solteak ere erabiltzen dituzte. Mananak euskarazko hitz batzuk dakizki, adibidez. Euren artean arabieraz eta hassaniyaz mintzatzen dira. Kontuan hartu, Eneko euskalduna izango dela Bermeon bizi delako eta horrek beste ikuspegi batzuk irekiko lituzkeela agerikoa da. Kulturen eta hizkuntzen arteko nahasketa... baina, galdera da, nolako eredia bultzatu nahi dugu?

■ Atalaren berrikuspena

- 1 Zelan dauka izena Sahararen aldeko Bermeoko taldeak?
 - a) BermiSahara
 - b) BESALDE
 - d) SAHARAREKIN ELKARTASUNA
 - e) Sahararekin Bat

- 2 Ze lan egiten du elkarteak?
 - a) Material bilketaz arduratzen da
 - b) Sahararren Euskal Herriko ordezkaritza lanak
 - d) Materialen bilketaz, udan datozen umeez eta saharar herriari buruzko arazoez arduratzen dira

- 3 Zenbat ume saharar egon ziren Bermeon 2004ko udan?
 - a) 8
 - b) 14
 - d) 11

- 4 Nola kalkulatu dute adina sahararrek?
 - a) Euren egutegiaren arabera
 - b) Jaiotze urtea kalkulatu
 - d) Ez dituzte hilabeteak erabiltzen

- 6 Nor da Bermeon bizi diren sahararren erreferentea?
 - a) Mohamed Lamin
 - b) Mohamed Abdelaziz
 - d) Mohamed Aita

- 7 Nongo herritartasuna dauka Mohamed Aitak?
- a) Aljeriakoa eta Mendebaldeko Saharakoa
 - b) Mauritaniakoa eta Mendebaldeko Saharakoa
 - d) Mendebaldeko Saharakoa eta Espainiakoa

Emaitzak:

1 b	2 d	3 a	4 b	5d	6 a
-----	-----	-----	-----	----	-----